



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

## AKORDIOA, UPV/EHUko IRAKASLE-IKERTZAILE LAN KONTRATUDUNEN NEGOZIAZIO MAHAIARENA, HAIEN ERRETIORAKO NEURRI BEREZIEI BURUZKOA

Kontuan harturik egungo egoera juridikoa eta arauak diotena, proposatzen da GUTXIENEKOEK AKORDIO bat onartzea, nahiz eta negoziazio kolektiboarekin jarraitu ahal izango den, proposamen honetan jaso gabeko gaiak lantzeko, kontuan izanik gainera kasu batzuetan gai horiek aurreikusi direla estatu mailan sinatutako akordioetan. Bereziki aipatu behar da ezintasun orokor osoari, erabateko ezintasun iragankorrari eta baliaezintasun handiari dagozkien kalte ordainen behin betiko arautzea, Epaitegi Gorenak oraindik ez baitu gai honetaz epai irmorik eman. Segurtasun juridikoa dela eta, auzibitarrea dagoenez, gai horren negoziazioa etenda egongo da Auzitegi Gorenak epaia eman arte. Epaia ematen denean berehala betearaziko da, bere horretan.


### LEHENENGOA.- Printzipio orokorrak

Hauek dira akordioaren printzipioak:


- Indarrean dauden arauak errespetatzea, aplikazio araubide juridiko guztietan. Akordio honen ondorioz hartutako neurrien bidez, ahalik eta trataera berdintsuena eman nahi zaie UPV/EHUn diharduten enplegatu publiko guztiei.
- Funtzionarioekin parekatuta egon daitezen, lan kontratudun irakasle-ikertzaileek 70 urterekin hartu beharko dute nahitaezko erretiroa, eta jardunean egon ahal izango dira adin hori betetzen duten ikasturtea amaitu arte, Langileen Estatutuaren hamargarren xedapen gehigarrian aipatutako baldintzetan (abenduaren 28ko 21/2021 Legearen azken xedapenetako lehenengoak aldatua). Nahitaezko erretiroa horretatik kanpo uzten dira irakasle emerituak, itzal handiko ikertzaileak eta itzal handiko irakasleak.
- Erretiroen ondorioz hutsik geratuko diren plazak erabiliko dira UPV/EHUko irakasle-ikertzaileen premiei erantzuteko, kontuan harturik 2014ko irailaren 17an irakasle-ikertzaile funtzionario eta lan kontratudunen Plangintza Batzordeek lan bermeak mantentzeari begira onartutako Oinarrizko Akordioetan jasotakoa.

### BIGARRENA.- Irakasle-ikertzaileen irakats ahalmena murriztea

- Baldintzak:
  - Lan kontratudun finkoa izatea unibertsitateko irakasle kategoriaren batean, eta UPV/EHUn behin betiko lanpostu bat betetzen egotea zerbitzu aktiboko administrazio egoeran edo plaza erreserba dakarren beste edozeinetan, edo egonkorra izatea edota plaza hutsa betetzen ari den bitartekoa, arduraldi osoan UPV/EHUn eraginezko zerbitzuetan 6 urteko antzintasuna izanik (5 urte, genero indarkeriaren, kontziliazioagatiko eszedentziaren edo kontziliazioagatiko lizentziaren kasuan, zerbitzu aktiboko urteak gutxienez urtebete murriztu badira).
  - Konpromisoa hartzea erretiroa hartzeko ikasturtearen urtarrilaren 31n edo abuztuaren 31n, Gizarte Segurantzak horretarako ezarritako gutxienezko baldintzak betez gero.
  - 60-67 urte izatea erretiroa hartzeko unean.



UPV/EHU



Irakasle-ikertzaile Komisia  
UPV/EHU



UGT  
Zerbitzu Publikoak







b) Irakats ahalmena (Jardun edo hura ordeztuko duen sistema aplikatu baino lehen) murrizteko aukera egongo da:

Erretiroa hartzeko ikasturtea ken 3 urte	% 12,5 [1 h/a tutoretza]
Erretiroa hartzeko ikasturtea ken 2 urte	% 25 [2 h/a tutoretza]
Erretiroa hartzeko ikasturtearen aurreko ikast.	% 37,5 [2 h/a tutoretza]
Erretiroa hartzeko ikasturtea	% 50 [3 h/a tutoretza]

I. TAULA. Ikasturte amaieran hartutako erretiroetan aplikatu beharreko murrizketak

Ikasturtea Curso	EI-3 CJ-3	EI-2 CJ-2	EI-1 CJ-1	EI CJ
Murrizketa Reducción	% 12,5	% 25	% 37,5	% 50
Irakats ahalmena Capacidad docente	% 87,5	% 75	% 62,5	% 50
Tutoretzak Tutorías	5 h/a	4 h/a	4 h/a	3 h/a

Oharra/nota: EI – Erretiroa iragateko ikasturtea / CJ – Curso de acceso a la jubilación

Erretiroa hartzen bada lehen lauhilekoa amaitzean, murrizketa aplikatuko da azken lau urteetan; hau da, sartuko da lehenengo ikasturteko bigarren lauhilekoa (murrizketekin).

II. TAULA. Lehen lauhilekoa amaitzean hartutako erretiroetan aplikatu beharreko murrizketak


Ikasturtea Curso	EI-4 CJ-4	EI-3 CJ-3		EI-2 CJ-2		EI-1 CJ-1		EI CJ
		1	2	1	2	1	2	1
Lauhilekoa Cuatrimestre	2	1	2	1	2	1	2	1
Murrizketa Reducción	% 12,5	% 12,5	% 25	% 25	% 37,5	% 37,5	% 50	% 50
Irakats ahalmena Capacidad docente	% 87,5	% 87,5	% 75	% 75	% 62,5	% 62,5	% 50	% 50
Tutoretzak Tutorías	5 h/a	5 h/a	4 h/a	4 h/a	4 h/a	4 h/a	3 h/a	3 h/a

Irakats ahalmena murrizteko aukera hau hartuko duten irakasle-ikertzaileek konpromisoa hartuko dute erretiroa hartzeko lehen lauhilekoa (urtarrilaren 31) edo ikasturtea (abuztuaren 31) amaitzean. Hori egin ezean, dagokien erregularizazioa aplikatuko zaie.

c) Deialdiak

Murrizketa hauek hartu nahi dituzten irakasle-ikertzaileek bi deialdi izango dituzte ikasturte bakoitzean eskaria aurkezteko, eta Gizarte Segurantzaren agiria aurkeztu beharko dute eskariarekin batera (erretiro arrunta zer adinetan hartu behar duten adierazten duena).

d) Batarezintasunak



UPV/EHU







Murrizketa hauek bateragarriak izango dira erretiro partzialarekin.

d) Murrizketak metatzea

Sailletako irakaslanaren urte anitzeko plangintzaren barruan, murrizketak metatu ahal izango dira erretiroa hartu aurreko aldiaren amaieran, ikerketa eta kudeaketa ahalmenak mantenduta.

III. TAULA. Ikasturte amaieran hartutako erretiroetarako murrizketak metatzea

Ikasturtea Curso	EI-3 CJ-3	EI-2 CJ-2	EI-1 CJ-1	EI CJ
Murrizketa Reducción	% 0	% 0	% 25	% 100
Irakats ahalmena Capacidad docente	% 100	% 100	% 75	% 0
Tutoretzak Tutorías	6 h/a	6 h/a	4 h/a	0 h/a


IV. TAULA. Lehen lauhilekoa amaitzean hartutako erretiroetarako murrizketak metatzea

Ikasturtea Curso	EI-4 CJ-4	EI-3 CJ-3		EI-2 CJ-2		EI-1 CJ-1		EI CJ
		1	2	1	2	1	2	
Lauhilekoa Cuatrimestre	2	1	2	1	2	1	2	1
Murrizketa Reducción	% 0	% 0	% 0	% 0	% 0	% 50	% 100	% 100
Irakats ahalmena Capacidad docente	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 50	% 0	% 0
Tutoretzak Tutorías	6 h/a	6 h/a	6 h/a	6 h/a	6 h/a	3 h/a	0 h/a	0 h/a

e) Irakasle-ikertzaileen kredituen murrizketen ondorioz txikitu egiten da kasuan kasuko sailaren ahalmena, eta horrek urteko irakats betebeharra vs urteko irakats ahalmena sailaren ratioa (UIL/UIA) % 95etik gora eramaten badu, murrizketa horiek konpentsatu egin behar dira irakasle laguntzaile doktore, agregatu edo titular plazak hornituta (edota etorkizunean horiek ordeztuko dituzten beste plaza batzuk), erretiroak gauzatu aurretik.

**HIRUGARRENA.- Erretiro partziala**

- Irakasle-ikertzaile lan kontratudunek erretiro partziala hartu ahal izango dute txanda kontratuaren bidez, Gizarte Segurantzak ezarritako baldintzetan.
- Kasu horietan, BIGARREN ataleko murrizketak bateragarriak izango dira erretiro partzial horrekin, nahiz eta kontratazio bakar bat egin ahal izango den jatorrizko plazaren kontura.
- Sailletako irakaskuntzaren urte anitzeko plangintzaren barruan, murrizketak metatu ahal izango dira azken zatian. Beraz, oinarritzko bi aukera egongo dira:







**A AUKERA / OPCIÓN A – METATU GABE / SIN ACUMULACIÓN**

Ikasturtea Curso	EPI-3 CJP-3	EPI-2 CJP-2	EPI-1 CJP-1	NBE CJP	Erretiro partziala Jubilación Parcial	
Murrizketa Reducción	% 12,5	% 25	% 37,5	% 50	% 0	% 0
Kontratua Kontratua	% 100	% 100	% 100	% 100	% 50	% 50
Irakats ahalmena Capacidad docente	% 87,5	% 75	% 62,5	% 50	% 50	% 50
Tutoretzak Tutorías	5 h/a	4 h/a	4 h/a	3 h/a	3 h/a	3 h/a

**B AUKERA / OPCIÓN B – MURRIZKETAK METATUZ / CON ACUMULACIÓN DE LAS REDUCCIONES**

Ikasturtea Curso	EPI-3 CJP-3	EPI-2 CJP-2	EPI-1 CJP-1	NBE CJP	Erretiro partziala Jubilación Parcial	
Murrizketa Reducción	% 0	% 0	% 0	% 25	% 100	% 100
Kontratua Kontratua	% 100	% 100	% 100	% 100	% 50	% 50
Irakats ahalmena Capacidad docente	% 100	% 100	% 100	% 75	% 0	% 0
Tutoretzak Tutorías	6 h/a	6 h/a	6 h/a	3 h/a	3 h/a	0 h/a

EPI – Erretiro partzialera iragateko ikasturtea / CJP – Curso de acceso a la jubilación parcial

Oharra: A eta B taulak egin dira kontuan hartuta 2027ko baldintza orokorrak, behin betiko erretiroa ikasturtea amaitzean hartuko duten irakasleentzat. Murrizketak egokituko dira eskatzailearen egoerara, eta mantendu egingo da behin betiko erretiroa abuztuaren 31n edo urtarrilaren 31n hartzeko derrigortasuna, irakaslana modu egokian antolatze aldera.

**LAUGARRENA.- Ordaindutako baimena eta eszedentzia**


a) Irakaslana ondo planifikatzeko, bat ez datozenean erretiroa hartu nahi den data eta lauhilekoaren edo ikasturtearen amaiera, ordaindutako baimena edota eszedentzia eskatu ahal izango da, soldatarik gabe, Gizarte Segurantzaren kotizatuta.

b) Baldintzak:


- Lan kontratadun finkoa izatea unibertsitateko irakasle kategoriaren batean, eta UPV/EHUn behin betiko lanpostu bat betetzen egotea zerbitzu aktiboko administrazio egoeran edo plaza erreserba dakarren beste edozeinetan, edo egonkorra izatea edota plaza hutsa betetzen ari den bitartekoa, arduraldi osoan, UPV/EHUn eraginezko zerbitzuetan 6 urteko antzintasuna izanik (5 urte, genero indarkeriaren, kontziliazioagatiko eszedentziaren edo kontziliazioagatiko lizentziaren kasuan, zerbitzu aktiboko urteak gutxienez urtebete murriztu badira).

- Konpromisoa hartzea erretiroa hartzeko ikasturtearen urtarrilaren 31n edo abuztuaren 31n, Gizarte Segurantzak horretarako ezarritako gutxienezko baldintzak betez gero.

60-67 urte izatea erretiroa hartzeko unean.



UPV/EHU





- c) Baldintza horiek betetzen dituzten irakasle-ikertzaileek ordaindutako baimena hartu ahal izango dute, gehienez 6 hilabetekoa, erretiro dataren edo erretiroaren aurreko eszedentziaren aurre-aurreko aldian.
- d) Baldintza horiek betetzen dituzten irakasle-ikertzaileek eszedentzia ere hartu ahal izango dute, gehienez 6 hilabetekoa, erretiro dataren aurre-aurreko aldian.
- e) Ordaindutako baimena ez da bateragarria izango irakats ahalmenaren murrizketekin, ez eta erretiro partzialarekin ere.
- f) Eszedentzia bateragarria izango da irakats ahalmenaren murrizketekin.

### **BOSGARRENA.- Genero arrakalari loturiko baimen berezia**

a) UPV/EHUn lanean egon diren bitartean adingabeak edo mendeko pertsonak zaintzeko eszedentzia, baimena edo lanaldi murriztua hartu duten pertsonak baimen berezi bat eskatu ahal izango dute erretiroa (edo LAUGARREN ataleko baimena edota eszedentzia) hartu aurre-aurretik, soldata osoa jasorik:

1. Adingabeak edo mendeko pertsonak zaintzeko eszedentziaren kasuan, baimen berezia hilabetekoa izango da eszedentzia urte bakoitzeko, gehienez 3 hilabetekoa.
2. Lanaldi murrizketaren kasuan, urteen arabera haren baliokidea kalkulatu da, eta kalkulu horretatik ateratako urte bakoitzeko hilabeteko baimen berezia emango da, gehienez 3 hilabetekoa.

b) Baldintzak: Lan kontratudun finkoa izatea unibertsitateko irakasle kategoriaren batean, eta UPV/EHUn behin betiko lanpostu bat betetzen egotea zerbitzu aktiboko administrazio egoeran edo plaza erreserba dakarren beste edozeinetan, edo egonkorra izatea edota plaza hutsa betetzen ari den bitartekoa, arduraldi osoan, UPV/EHUn eraginezko zerbitzuetan 6 urteko antzintasuna izanik.

c) Baimen berezi honetako bi azpimotak metagarriak izango dira (gehienez 3 hilabetera arte) eta bateragarriak izango dira BIGARREN ataleko irakats ahalmenaren murrizketarekin, txanda kontratuarekin eta ordaindutako baimenarekin.

### **SEIGARRENA.- Jarraipen batzordea**

Akordioa sinatzen duten sindikatuek eta administrazioak batzorde parekide bat eratuko dute, urtean behin gutxienez bilduko dena, adostutakoaren jarraipena egiteko eta modu egokian aplikatzeko. Gainera, bilera horretan aztertuko da urtero eginiko eskarien bilakaera eta eskaeren eragina UPV/EHUko sailen antolakuntzan.

### **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

**Lehenengoa.-** Akordio hau berrikusi ahal izango da, gerora sortutako inguruabarrengatik adostutakoaren lege esparrua, esparru konbentzionala, ekonomikoa edo aurrekontu arlokoa aldatzen bada. Nolanahi ere, berrikusi aurretik, sindikatuekin negoziatu beharko da.

**Bigarrena.-** Erabaki hau aplikatuz, ezohiko deialdi bat egingo da 2023/24 ikasturtea amaitu aurretik. [Akordioa ekainaren 15a baino lehen berresten bada].

### **LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA**

Aurretik hartutako neurriak aplikatu zaizkien pertsonak [hau da, Erretiroen Batzorde Teknikoak 2015eko uztailaren 24an sinatutako Akordioan (Gobernu Kontseiluak





Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

2015eko urriaren 1ean berretsitakoa) edo Gobernu Kontseiluaren 2022ko Akordioan jasotako neurriak] neurri horien pean jarraituko dute. Hala ere, nahi izanez gero, aukera izango dute akordio berri honetako neurriren bat eskatzeko, eta dagokion erregularizazioa egingo da kasu horretan.


### AZKEN XEDAPENA

Akordio hau eraginkorra izan dadin, UPV/EHUren Gobernu Kontseiluak berretsi beharko du, eta irakasle-ikertzaile lan kontratadunen hitzarmenaren dagokion atalean jasoko da.

### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Testu honek baliorik gabe uzten ditu Gobernu Kontseiluaren 2022ko urriaren 20ko AKORDIOAN [UPV/EHUren giza baliabideak arrazionalizatzeko planari buruzkoa (1. fasea): erretirora iragateko neurriak] jasotako irakasle-ikertzaile kontratadunen irakats murrizketei buruzko artikulua.

Adostasun horren erakusgarri, dokumentu hau sinatzen dute, Leioan, 2024ko ekainaren 10ean.



CCOO

ELA



LAB



STEILAS



UGT



UPV/EHU